

DOKUMENTUAK ETA PROTOKOLOAK

EAEko Haurren eta Nerabeen 2/2024
Legeak agindutakoa betez,
Gaztematika sareko erakundeentzat
honako dokumentu eta protokoloak
proposatzen dira.

Jardun-protokoloa

Konpromiso instituzionala garatzen duen
esparru-dokumentua da erakundearen
jarduera, zerbitzu edo ekipamenduetan parte
hartzen duten haur eta nerabe guztien babes
bermatzeko.

Arriskuen mapa eta babes-neurriak

Modu ordenatuan jasotzen ditu haur eta
nerabeentzat jarduera eta espazio desberdinetan
egon daitezkeen arriskuak eta, horiekin batera,
arrisku potentzial horien azalpena, bakoitzaren
larritasun mailaren balorazioa, eta hori murrizteko
edo ezabatzeko gauzatu behar diren
prebentzio-ekintzak.

Profesionalen jokabide-kodea

Alde batetik, haurrekin eta nerabeekin
elkarreraginean aritzeko gomendatutako
portaerak jasotzen ditu eta, bestetik, saihestu
behar direnak. Dokumentu sinatu baten itxura du,
eta pertsona bakoitzak bere interakzioetako haur
eta nerabeekin duen jokabidearekiko hartutako
konpromisoa islatzen du.

Babesteko eginkizun eta erantzukizunak

Erakundeak haurrak babesteko duen egituraren
barruan pertsona mota bakoitzaren eskumenak
eta zereginak zein diren jasotzen du. Haurrekin eta
nerabeekin lan egiten dutenen eginkizunak eta
erantzukizunak deskribatzen ditu, profil
desberdinak bereiziz eta sarearekin duten lotura
kontuan hartu gabe: babes-erreferenteak,
babes-ordezkaririk, babes-batzordea, haurrak,
nerabeak eta haien familiak.

Profesionalen hautaketa eta kontratazioa

Erakundeetan profesionalak sartzeko eta
berritzeko prozesuan haiei eskatzen zaizkien
ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak
jasotzen ditu; eta bereizi egiten ditu beren
ardurapean haurrak eta nerabeak dituztenak
eta ez dituztenak.

Prebentzio-eta arreta goiztiar eta babeseko protokoloak

Gure jarduera, zerbitzu edo ekipamenduetan haur edo
nerabe bati kaltea eragin diezaiokeen edozein
egoeraren aurrean nola erantzun behar dugun jasotzen
dute. Honako inguruabar hauek aurreikusten dituzte:

- Kalteberatasun-egoera.
- Berdinen arteko gatazka-egoera.
- Arrisku arineko, ertaineko edo larriko egoera.
- Indarkeria edo eskubideen urraketaren
susmo- edo ebidentzia-egoera.

Babes-zirkuituak

Modu egituratuan jasotzen dute lurralde jakin
batean erabili beharreko babes-baliabide eta
erakunde ofizialak zein diren. Izen espezifikoekin
zehazten dute zer agintari eskuduni eman behar
zaien arrisku arineko, ertaineko eta larriko egoeren
berri, indarkeria eta tratu txarrak barne.